

## Zinema

## Hil nazazu algaraka

“Zure baimenarekin, etxera noa, bihotzekoa izatera”, dio John Travoltak *Pulp Fiction* komedia beltzean. Sarkasmo iluna maite duen generoak ibilbide oparoa egin du pantaila handian eta azken emaitza etxean bertan dugu: Telmo Esnalek zuzendutako *Urte berri on, amona!*

MIKEL GARCIA

KATAKLISMO NUKLEAR baten atarian, goi-mailako agintariak bildu egin dira, nola jokatu erabakitzeko. Gutxienez 100 urtez lurrazpiko pasabideetan bizitzea eta ugaltzeko gizon bakoitzak hamar emakume gazte izatea proposatuko du Strangelove doktoreak, eta aretoko gainerako gizonezkoek ideia ona irudituko zaie. Adibide zaharragoak aurki baditzaie ere, Stanley Kubrickek zuzendutako eta Peter Sellers komikoak antzezturiko *Dr. Strangelove or: How I Learned to Stop Worrying and Love the Bomb* filma (1964) hartzen da komedia beltzaren aurrekaritzat.

Ezbeharrei eta bereziki heriotzari lotuta ageri da ia beti generoa. Kutsu britainiarraren adibide, Monty Python lotsagabeen eszena solteak (*The Holy Grail*, *Life of Brian*), Guy Ritchieren *Snatch* edota *remake* estatubatuarra eragin zuen *Death at a funeral* filma, hiletan okerreko hildakoa, maitale nanoa eta drogak nahasten dituen. *Delicatessen* frantsesak haragi-gose diren bizilagunen istorioa ekarri zigun eta *C'est arrivé près de chez vous* belgikarrak, *serial-killer*-ei buruzko pelikulen parodia zinikoa. Baina asiar zineman bilatu ohi ditugu proposamen harri-garrienak, manga eta bideojoko estiloan bortizkeria, odola, terrorea eta umorea korapilatzen dituen *Battle Royale* japoniarra kasu. Sotilago eta ironikoago, tortura gelan erlaxatzea gustuko duen *The Addams Family*: Gomez, Morticia eta gainerakoak Charles Addams komikigileak sortu zituen *The New Yorker* egunkarirako.

Hainbat zuzendarik bere egin du komedia beltza, estilo pertsonalarekin. Tim Burtonek irribarrea sorrarazten daki giro goibel, hits eta makurrenatan (*Sweeney Todd*, *Sleepy Hollow*, *Beetlejuice*); Coen anaiek barrea bilatzen dute satira soil eta gordinarekin (*Fargo*, *A serious man*, *No country for Old Men*), Quentin Tarantinoren dialogo eszentrikoak irudi biolentoen kontrapuntu bitxia dira (*Pulp Fiction*, *Reservoir Dogs*, *Inglorious Basterds*); eta Alex de la Iglesia bilbotarraren pertsonaiak zikoitzak baina selebreak izan ohi dira (*El día de la bestia*, *La comuni-*

*dad*, *Perdita Durango*). Muga politikoki zuzenak hausten abilenak, dena den, *South Park* telesailako protagonista mihigaiztoak ditugu –galdetu bestela kapituluoro modu ankerreenetan hiltzen den Kenny gizajoari–.

**Txotxetik urte berrira, gazi-gozo**

Gurean, Telmo Esnal eta Asier Altuna tandem aipatu behar ditugu ezinbestean. Oso okela berezia saltzen zuen sagardotegia irudikatu ziguten *Txotx* film laburrean, klonazioarekin jolastu zuten *40 ezeztz* lanean eta *Aupa Etxebeste!* arrakastatsua ostean, hastapenetako mundu ilun hartara bueltatu nahi izan dutela kontatu digu Esnalek. Oraingoan, urrats bat harago doa biek idatzitako eta Esnalek bakarka zuzendutako *Urte berri on, amona!*, aurreko lanak baino basatiagoa, apurtzaileagoa, barregarriagoa. Mafia, thriller eta tragedia ukituekin atondua, artez uztarturiko genero saltsa prestatu du zuzendari zarautarrak, bihurgunez betetako istorio dinamikoa, aktoreek bikain antzezturiko barrabaskeria serioa. Amona gogaikarriak familian eragiten dituen buruhaustekak dira filmaren ardatza, eta “gidoia idazterakoan pentsatzen genuen, ‘pasatzen ari ote gara?’, baina gero egunkaria irakurri eta ezetz konturatzen ginen”, dio Telmo Esnalek *Urte berri on, amona!* filmaz (irudian, Josean Bengoetxea aktorea pelikulako eszena batean).

“Gidoia idazterakoan pentsatzen genuen, ‘pasatzen ari ote gara?’, baina gero egunkaria irakurri eta ezetz konturatzen ginen”, dio Telmo Esnalek *Urte berri on, amona!* filmaz (irudian, Josean Bengoetxea aktorea pelikulako eszena batean).

“Gazi-gozoa, barre egiten ari zarelako... baina zertaz? Gibelean gai serioak jorratzen dira: emakumeak gizartean duen rola, senarraren jokaera, biolentzia... Umorea, drama, suspentsea nahasten ditut, baina ez metodikoki, intuitiboki baizik, horrelakoa naiz nire bizitzan ere, umore beltza egiten dut nahigabe”. Hitchcock, Ferreri, Berlanga, Coen anaiek, Lumet... ditu erreferentzia, baina zigilu pertsonala jartzen die bere lanei, barrutik ateratzen zaiona egiten du, eta barru-barrutik umore beltz zorrotza ateratzen zaio Telmo Esnali. ■

